

Mutiko izengabe baten istorioa

'SOMMER JAUNAREN ISTORIOA'

Izenburua. *Sommer jaunaren istorioa*.
 Jatorrizko izenburua. *Die Geschichte von Herrn Sommer*.
 Egilea. Patrick Süskind.
 Itzultzailea. Miren Lourdes Oñederra.
 Argitaratze urtea. 2007. Argitaletxea. Erein.

A. IRIZAR

PATRICK Süskind idazle bavariarra *Perfumea* nobelarekin egin zen mundu osoan ezaguna. Bide batez, esan dezagun liburu hori, iaztik, euskaraz ere irakurtzeko modua badugula, Alberda-

nia argitaletxeak argitaratu baitzuen, Miren Arratibelek itzulita. Oraingo hau, ordea, oso bestelako lana dugu. Ipuin bat da; gazetxoentzako ipuintxo bat, hasiera batean. Erein argitaletxeak ere haur eta gazte literaturako Perzebal sailean eman du argitara. Nabarmena da, baina, Süskinden lan ederrari motz samar gelditzen zaiola sailkapen hori, eta, nire iritzirako, *Sommer jaunaren istorioa* aise har daiteke helduentzako ipuintzat ere.

Narratzaileak –ez da haren ize-nik agertzen–, Sommer jaun xelebrearen istorioa aitzakia hartuta,

haurtzaroko oroitzapenak ekar-tzen ditu gogora. Edo, beharbada, zehatzagoa izango litzateke esatea narratzailea haurtzarora itzultzen dela eta garai hartako oroitzape-nak, berriturik, bere haurtasunetik kontatzen dituela. Izan ere, hein batean, haur batena edo gazetxo batena da liburuan ageri den gauzak kontatzeko modua; izanen zuen esaldien joskeraren aldetik zailtasun bat baino gehiago itzultzaileak. Bestalde, esan beharra dago, ikuspegi naif eta xalo horren oso lagungarri gertatzen direla Sempé ezagunaren ilustrazioak, euskarazko itzulpen hone-

tan ere, beste hizkuntzetara egi-nikoetan bezala, bere horretan gorde baitira. Irudiek ez ezik, liburu-ko pasarte barregarriren batek ere –piano irakasleareneko pasadizo gogoangarriak, bereziki– eka-rrri dizkigu bai gogora gure ume garaietako Nikolas Txikiren irakurketak.

Liburuaren itzulpena Lourdes Oñederrak egin du. Idazlea, uni-bertsitateko irakaslea, berriki euskaltzain oso izateko aukeratua, argitaratu duen lehenbiziko lite-ratur itzulpena du honako hau. Liburuaren aurkezpenean aitortu zuenez, asko ikasi omen du itzul-

pen-lanarekin eta sufritu ere egin omen du, itzultzea oso lan zaila delako. Ez dira horiek, inondik ere, gauzak axolagabeki egin dituenaren adierazpenak; ez horixe. Irudipena dut, hala ere, gauzak ongi egin nahian, jatorrizkoari estuegi ez ote zaion lotu batzuetan, itzultzaile hasi berriaren beldur-rak erabat uxatzea lortu ez eta, ondorioz, tarteka naturaltasun pittin bat ez ote zaion falta testua-ri. Edonola ere, irudipenak irudi-pen, eta akats txiki batzuk gora-behera, zinez ederra da Lourdes Oñederraren eskutik euskal letre-tara heldu zaigun liburu hau.